

GURE ENPLEGUA DEFENDA DEZAGUN

kaleratzerik,
prekarietaterik **EZ**

El Corte Ingles-ak EREa arrakasta gisa saldu nahi du Lehen fasea zalantza askoairean utzita bukatu da

HAU EZ DA DIGITALIZAZIOA, PREKARIZATZEKO AITZAKIA DA

Neurri hauek ez dira pandemiaren edo digitalizazioaren ondoriozkoak, aspalditik El Corte Inglesek bultzatu nahi duen negozio ereduan urrats bat gehiago baizik: asteburuetako eta atea itxita igandeetan online-ean lan egiteko kontratazio prekarioak, webgunean gero eta katalogo zabalagoa, plantilla murrizketak, ordezkapen falta, aldibaterako kontratuak ez luzatzea...

Prozesu hau, gainera, kaleratzerik ez egiteko bermea omen zen eta **gure lan baldintzak izugarri malgutu zituen lan baldintzen funtsezko aldaketa** bat sinatu eta urtebete ere pasa ez dela hasi dute, kolpean 3.000 pertsonatik gora kaleratuz.

Bolondresak?

Enpresa honek borondatea ulertzeko oso berezko modua du, konfinamenduan igandeetan "bolondresekin" zabaldu zenean salatu genuen. Bolondresak non, presioak sufritu dituen eta errepresalien beldur den jendea han. "Borondatezko fase" honetan, **lan zentro desberdinetan presioak eta mehatxuak salatu dituzte**, bereziki zaintzagatiko lanaldi murrizketa duten pertsonak. Gure lan-zentroan ez da gertatu, baina hau salatu duten gainerako lankideekin gure elkartasuna adierazi nahi dugu.

Eta oran, zer?

LABek argi dugu ERE honen guztiz kontra gaudela. Digitalizazioari ekiteko beste bide batzuk daudela

iruditzen zaigu eta ECI-ren apustua irabaziak handitzeko lanpostuak suntsituz lan-kostuak murriztea besterik ez dela.

Enpresak EAEn sostenguko 37 lanpostu suntsitu nahi zituen, eta bertako bolondresik egon ez bada ere, salmenta departamentuko langile nahikok aurkeztu dute euren burua. Beraz, eskaera horiei ezetza ematea eta kaleratzeekin aurrera jarraitzea zentzugabekeria dela transmititu diogu enpresari, eta honek derrigorrezko kaleratzerik egongo ez dela ziurtatzen du.

Baina, **zein egoeratan geratuko dira orain arte sostenguko lanpostuetan egondako pertsonak?** Salmentara pasako dituzte? Zein lan-zentrorra? **Ze baldintzatan emango lirateke mugikortasun geografikoak?** Inditex edo H&Mren ERE prozesuetan gertatu bezala, inposatutako lan baldintzen ondorioz, langileek euren lanpostuari uko egiteko arriskuaren aurrean gaude. Ez dira kaleratze zuzenak izango, baina lanpostuak zeharka berdin-berdin suntsitu ahal dira. Horregatik, enpresari gardentasuna eta konpromisoa eskatzen dizkiogu.

Gainera, **hemen ez dago langilerik soberan, pertsonal faltan gaude! Lan karga etengabe ari da handitzen.**

EREari EZ!

Sostengu-pertsonalarentzako bermeak!

Kontzentrazioa: apirilak 30- 14.30

ECI aurrean

**GURE ENPLEGUA DEFENDA DEZAGUN!
KALERATZERIK EZ, PREKARIETATERIK EZ!
LANGILEEN ALDEKO POLITIKAK ORAIN!**

LAB

www.lab.eus